

## **TOLOSALDEKO EMAKUMEEN ETXEA GARATZEKO PROZESUA** **LANTALDE POLITIKO TEKNIKOAREN AKTA**

**Eguna:** 2021-11-03

**Ordua:** 16:00-18:00

**Lekua:** Tolosako Udala

<b>PARTAIDEAK</b>
Tolosako alkatea
Tolosako Udaleko 3 zinegotzi (EAJ, EH Bildu, PSE)
Berastegiko alkatea
Asteasuko alkatea
Tolosako Asanblada Feminista (2 ordezkari)
Tolosaldeko Mugimendu Feminista (ordezkari 1)
Elhuyar

### **Gai zerrenda:**

#### **1. Kudeaketa-eredua: Talde Eragilean landutakoa aurkeztu eta kontrastatu**

Elhuyarrek eta Tolosako Udaleko berdintasun-teknikariak landutako kudeaketa-ereduaren hasierako proposamenari Talde Eragileak egindako ekarpenak gehituta, **azken proposamena** aurkeztu dugu. Hainbat ideia nabarmendu dira:

- Ordezkari politiko eta sozialen arteko **parekidetasuna** bilatzen da.
- Egiturak **arina, bizia** eta funtzionala izan behar du.
- Abiapuntuan aipatzen da Emakumeen Etxeko dinamizatzaileak eta Tolosako Udaleko berdintasun-teknikariak harremana edukiko dutela eskualdeko herrietako **Gizarte Zerbitzuetako teknikariek**. Baina aipatu da berdintasun gaiak sail desberdinetan lantzen direla, ez beti Gizarte Zerbitzuetatik. Zehaztu da, indarkeriarekin lotutako gaiak komeni dela koordinatzea sail honekin.

Koordinazio Guneari dagokionez galdetu da ea zehaztuta ote dagoen Tolosako Udaleko bi ordezkari politikoak bi alderdi nagusietakoak izango diren. Argi utzi da ez dela horraino zehaztu baina logikoena litzatekeela eta interesa dagoela Udalak duen ordezkaritza politiko osoa bertan ordezkaturik egotea.

**Proposamena egoki ikusi da**, edozein kasutan, zehaztasunak begiratzeko denbora emango da eta ekarpenik balego hauek aurkezteko aukera egongo da.

#### **2. Talde Eragileko gainerako lanketak partekatu**

Etxeak nortasun juridiko propioa izan dezan beharrezkoa da **Elkartea sortzea**, eta horretarako urratsak ematen hasi da Talde Eragilea. Hiru boluntario prest agertu ziren Elkartearen estatutuak prestatzeko; azken bileran aurkeztu zituzten hauek. Orain, Elkarteko lehendakaria, idazkaria eta diruzaina izendatzeko lanketan ari gara. Behin hori zehaztuta, elkarte erregistratuko da.

Bestalde, lehenengo parte hartze prozesuan landutako erregelamenduaren hezurdura osatzen duten gainerako atalak erreparatu eta osatzen ari gara. Kudeaketa-ereduaz gain, **erabiltzaileak, eta eskubide eta betebeharrak** zehaztu ditugu. Horretarako, beste Emakumeen Etxe batzuetako ereduak hartu ditugu, eta hauei ekarpenak egin dizkiegu Talde Eragilean. Hona hemen erabiltzaileen atala:

## 02 Talde Eragileko gainerako lanketak partekatu

### ETXEAREN ERABILTZAILEAK

Etxearen erabiltzaile nagusiak 16 urtetik gorako emakumeak izango dira, norbanakoak zein Etxearen kudeaketa-organoetan dauden taldeetakoak.

Etxearen jarduerak emakumeei zuzendutakoak izango dira, oro har, eta hartzailea edo xede-taldea zein den zehaztuta ez dagoenean, emakumeei zuzendutakoa dela ulertuko dugu.

Emakumeek Etxea bere egindakoan eta horretarako unea dela adostutakoan hasiko da Etxea **jarduera** mistoak antolatzen.

Egoki baloratzen den unean, mistoak diren edo gizonei zuzendutako jarduerak antolatzeko aukera egongo da. Hala denean:

- Argi eta garbi adierazi beharko da **jarduera mistoa edota gizonezkoei zuzendutakoa** dela.
- **Beti** egongo dira zuzenki lotuta berdintasunarekin eta feminismoarekin.

Hemen berriz, erabiltzaileen eskubide eta betebeharrak:

## 02 Talde Eragileko gainerako lanketak partekatu

### ERABILTZAILEEN ESKUBIDE ETA BETEBEHARRAK

#### ESKUBIDEAK

- Etxearen erabiltzaileek Etxeak eskaintzen dituen zerbitzu, baliabide eta jardueretan parte hartzeko eskubidea izango dute; beharrezkoa den kasuetan aldez aurretik eguna eta ordutegia adostuz.
- Etxearen erabiltzaileek Etxearen eguneroko jarduerarekin lotuta egokiak iruditzen zaizkien **ekarpen eta iradokizunak egiteko eskubidea** izango dute, Talde Eragileko partaideekin harremanetan jarrita.
- Etxearen erabiltzaileek **gune seguru batean egoteko eskubidea** izango dute, eta konfidentziasuna bermatuko zaie.

#### BETEBEHARRAK

- Etxearen **dinamikarekin lotuta hartutako konpromisoak** betetzea. Adibidez, Etxearen kudeaketarako guneetan parte hartzea, hala adostuz gero.
- Etxearen printzipio orokorrekiko eta gainerako erabiltzaileekiko **errespetuz eta konfidentziasunez** jokatzeko.
- Etxearen **baliabide, material eta hornikuntzak zaintzea, egoera onean mantentzea eta egoki erabiltzea**. Eta ondasunei kalterik eraginez gero, kudeaketa-organoen aurrean erantzule gisa agertzea, konponbideak elkarrekin adosteko.
- Etxearen erregelamenduan **jasotakoak onartzea eta bere egitea**, Etxearen zehaztapena egiten duen funtsezko araudia gisa.
- Etxearen funtzionamendurako eta erabilerarako arauak errespetatzea (lantzeke), eta Etxearen funtzionamendu eokirako lan egitea.

Proposamena egoki ikusi da, edozein kasutan, xehetasunak lasaiago begiratzeko eta balizko ekarpenak egiteko tarte emango da.

### 3. Finantzaketa partekaturako proposamena aurkeztu

**Finantzaketa partekaturako Tolosako Udalak egindako proposamena** aurkeztu da.

Tolosako Udalak eraikinean zein horniduran jarriko duen dirua azkenean 800.000 eurora igoko da. Gainerako gastu komunak berriz, 28 herriren artean banatuko dira, dinamizatzailearen kasuan Tolosa kanpo geratuko da. Gastuen estimazioa egiterakoan Tolosako kultur etxeko gastuak estrapolatu dituzte Emakumeen Etxera. Banaketa egiterakoan, Udalen 2021eko diru sarrera arruntak hartu dira kontuan (Belauntza, Gaztelu eta Orendainen kasuan 2020koa, buletinean ez zelako agertzen 2021eko aurrekontua). Aktarekin batera bidalitako dokumentuan ikusten da, Etxea martxan jarri ahal izateko, herri bakoitzak hasiera batean jarri beharko lukeen kantitatea gastu arruntari zein dinamizatzaileari lotuta.

Dinamizatzailearen gastua kalkulatzekoan Tolosako Udaleko teknikariek kobratzen dutena hartu da kontuan. Kasu honetan, esan bezala, 27 herriei dagokien banaketa proposatu da (Tolosa kanpo).

**Proposamena egoki ikusi da, eta gainerako herriei honen inguruan informatzeaz arduratuko dira** Asteasu eta Berastegiko alkateak.

### 4. Dinamizatzailearen kontratazioaren nondik norakoak partekatu

Hasieratik garbi utzi da lanaldi osoko lanpostua eta berdintasun teknikari profila izango duela Etxearen dinamizatzaileak. 27 herrien artean erabaki beharko da kontratazioa nola egingo den. Horretarako, Tolosako Udaleko idazkariak proposatu zuen errazena herrien arteko hitzarmena egitea dela. **Tolosaldea Garatzenen idazkariek duten forora eramango da gaia**, eta hurrengo bilerarako ekarriko dute proposamena Asteasu eta Berastegiko alkateek.

### 5. Besterik

Emakumeen Etxearen proiektua herrietan (ordezkari politiko zein emakumeei) **aurkeztu, gogorarazi eta zabaltzeko beharra** jarri da mahai gainean. Udalak jartzera doazen dirua erabilgarria dela ikusteko herritarren (emakumeen) partetik eskaria edo bultzada izatea beharrezkotzat jo da. Horretarako, Mugimendu Feministako ordezkariak konpromiso hau hartu dute: Talde Eragileko kide bezala, parte-hartze prozesua hasi aurretik egindako bileretan lortutako emakumeen kontaktuei (herrietako 150 emakume norbanako inguru) email informatzaile bat bidaliko diete (Etxeko obrak hasi aurretik bidaltzea komenigarria ikusi da). Proiektua zertan den azaltzeaz gainera, beraien herrietako udaletara jotzea proposatuko zaie bertako udal arduradunei proiektuaren beharraz ohartarazteko. Bigarren email bidalketa bat egin daiteke parte-hartze prozesu amaieran egingo den Gune Zabalera gonbidatuz emakume hauek guztiak.

Era berean, Udalak Emakumeen Etxearen inguruan informatuta egotea komeni da. Finantzaketa partekatuaren berri ematera goazenean eskainiko zaie dagoeneko bilduta dagoen informazioa (finantzaketa partekatua, kudeaketa-eredua...).

**Obrei dagokienez**, fatxadarekin arazoak jarri dituzte eraikineko bizilagunek eta ondorioz, obrak atzeratzen ari dira. Hau desblokeatzen denean, pleguak zabaldu, eta hasiko dira obrekin. Dena ondo joanda, 2022ko irailerako Etxea irekitzeko aukera izatea aurreikusten da. Tolosako Udalak 2022ko aurrekontuetan sartuko du gastuen zatia, gainerakoek kalkulatu beharko dute iraila-abendua bitarteko gastuak estali beharko dituztela.

Mozioak onartu ez dituzten herrietan galdera egitea komeni da (Abaltzisketa, Baliarrain, Belauntza Orendain, Larraul).

Tolosako Udaleko webgunean sortutako Emakumeen Etxeari buruzko atala komeni da beste udaletako webguneetan txertatzea.

**Lantalde Politiko Teknikoaren hurrengo bilera-eguna urtarrilaren 17an 17:00etan** Tolosako Udaleko pleno-aretoan egitea adostu dugu.

### Hartutako konpromisoak:

KONPROMISOA	ARDURADUNA	DATA
Kudeaketa-ereduaren eta erregelamenduan zehaztutako gainerako atalen xehetasunak begiratu eta ekarpenik balego, egin.	Ordezkarri politikoak	Azaroa
Finantzaketa partekaturako proposamena herrietan aurkeztu eta dinamizatzailerekin kontrataziorako proposamena landu	Asteasu eta Berastegiko alkateak	Azaroa-Abendua
Emakumeei email informatzailea bidali	Mugimendu Feministako ordezkariak	Azaroa-Abendua
Mozioa onartu ez duten herrietan galdera egin	Tolosako Udaleko berdintasun-teknikaria	Azaroa-Abendua